

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## 1.741.433 euroko diru-laguntzen deialdia egin da desgaitasuna duten pertsonen arloko entitateetarako

*Eskaerak aurkezteko epea martxoaren 28an amaituko da*

Jueves, 26 de febrero de 2015

Gizarte Politiken kontseilari Íñigo Allik [2015erako diru-laguntzen deialdia onartu du, desgaitasuna duten pertsonen arloko gizarte-ekimeneko entitate](#)etarako. Horretarako, 1.741.433 euroko gastua baimentzen da eta, kopuru horretatik, 836.433 euro elkartegintza sustatzeko erabiliko dira, eta 905.000 programak garatzeko. Eskaerak aurkezteko epea martxoaren 28an amaituko da.

Deialdiaren helburua da, gizarte-ekimeneko, desgaitasunak dituzten pertsonen arloko erakundeei diru-laguntzak emateko araubidea finkatzea, horretarako honako hau sustatuz: elkartegintzako oinarritzko jardueren garapena edo autonomia bultzatzeko eta mendekotasuna prebenitzeko programak, 2015. urterako.

Diru-laguntza horiek baliatu ahalko dituzte Foru Komunitatean helbideratutako irabazi-asmorik gabeko erakundeei, desgaitasuna duten pertsonen eremuan bakarrik esku hartzen dutenak eta elkartegintzako oinarritzko jarduerak garatzen dituztenak honako hauei begira: autonomia pertsonala sustatzeko eta mendekotasuna prebenitzeko gizarte-zerbitzuen arloan.

Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak emateko prozedura lehiaketa-araubidean izapidetuko dira, aurkeztutako eskaerak alderatuz. Balioztatze eta ebazpenean lehentasuna izango dute, lehenik eta behin, "Elkartegintzaren sustapena" modalitaterako eskaerak, eta bigarrenik, "Programen garapena" modalitaterako eskaerak.

Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak emateko prozedura xede berarako emandako beste diru-laguntza edo laguntzarekin batekin osagarria izango da. Nolanahi ere, haien zenbatekoak ezingo du onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua gainditu (zenbateko horrek bakarrik gainditzea,edo beste diru-laguntza batzuekin, laguntzekin, diru-sarrerekin edo diru-laguntzaren xede den jardueraren beraren baliabide propioekin gainditzea)

2016ko urtarrilean, erakunde onuradunak jardueraren betearazpenaren frogagiria aurkeztu beharko du.